GAVROCHE

© FRANTXOA COUSTEAU

HIRUGARREN AGERRALDIA (lehen zatia.)

Oihala idekitzean, emazte zahar bat ikusten da, zikin untzi baten ikertzen ari dela, konkorturik. Erdi iunpe da, eta, **Gavroche***, gibeletik, kantuz orroaz entzuten da.*

Gavrochen abotsa **:**

Eskalapoin Erregea
Ihizin zabilen,
Gaizo kankail handia,
Ez zuen fitsik hiltzen.
Usoa ikusita
Tirokatu belea !

Sartzen da briu brau, eta ***Emazte zaharra*** *kaskatzen. Gibelerat egiten du, oihukatuz.*

Gavroche : O LA LA !!…Eta nik gauza hau, ANIMALEKO zakur baten-tzat hartua nuen !

Emazte zaharra : (*Kexu, xutitzen da.)* Deabru haur txarra ! Konkortua ez banintz izan, nik badakit nun bilduko zinuen ene ostikoa !!…Ah, oraiko gazteak !!

Gavroche : ***(****Urrunduz.)* Kss Kss !…Bainan, ez naiz beharba hainbeste tronpatu…*(Sudur pera hurbiltzen zaio.)* Andere hunek ez du neuri gustatzen zaidan grazia.

Aztalak itzuliz, ateratzen da, beti kantuz. Animaleko ostiko arrabotsak entzuten dira, atearen kontra. ***Emazte zaharra*** *laster abiatzen da, oihuka eta keinu handiak eginez.*

Em. zaharra : Zer da ?..Zer deabru pasatzen da berriz !…Jinko Jauna ! Atea zapartarazten dute ! Etxea errausten ! Hola balinbadira gaurko egunean etxeak arramoldatzen !?.. *(****Gavroche*** *agertzen da berriz.)* Zer, oraino deabru hori !

Gavroche : Te, zaharra diuk...Egunon, Andere Mari Santsan ! Ene arbasoen ikustera heldu naiz.

Em.zaharra : Ez da nehor, gaizki ikasia.

Gavroche : Ba!…Eta nere aita, nun ote da, beraz ?

Em.zaharra : Preso !

Gavroche : Te!…Eta ene ama ?

Em.zaharra : Preso !

Gavroche : A, ongi ! Eta ene arrebak ?

Em.zaharra : Preso !…preso !!

Gavroche : *(Beharria hazkatuz.)* Ah !…(*Itzulikatzen da, eta ateratzen, beti kantuz.* ***Emazte zaharra****k begiratzen du, fidagaizkor. Oihala hesten da.)*

<u>BOSTGARREN AGERRALDIA</u> (lehen zatia.)

Gavroche*, xutik, publikoari buruz itzulia, gune finko bati so. Lepoan beroki ba izan arren, tarteka, hotz ikara batek inarrosten du. Bere bi anai ttipiak bestaldetik sartzen dira, elgarri eskua emanez ; doi bat nigarrez ari dira.*

Tony : *(Montrant Gavroche.)* C'est **Gavroche**, je le reconnais !

Anne : Mais qu'est-ce qu'il regarde ? Je ne vois rien.

Elisa : Il est devant la boutique d'un coiffeur afin de voir s'il ne pourrait pas chiper dans la devanture un pain de savon…

Tony : A quoi cela lui servira-t-il ?

John : C'est qu'il ira ensuite le revendre un sou à un coiffeur de la banlieue.

V.HUGO : Eh oui, les enfants ! Il arrivait souvent à **Gavroche** de déjeuner d'un de ces pains là. Il appelait ce genre de travail "faire la barbe aux barbiers". *(**Gavroche** aperçoit alors ses deux frères, court après eux, et les aborde.)*

Gavroche : Zer duzue ba, haur txarrak ?

Gehiena : Ez dakigu nun lo egin.

Gavroche : Are ba…Hau' tuk ttuttulak !…Are ñimiñoak, zatozte enekin.

Gehiena : Bai Jauna…(*Elgarrizketa horren denboran, neskato bat, atezain bat, eskale bat, eta beroki beztitu gizon bat sartu dira. Bi ttipiñoek,* ***Gavroche*** *segitzen dute, apezpiku bat balitz bezala. Ez dute gehiago nigar egiten, eta hiruak, bat bestearen ondotik ibiltzen dira.)*

Neskatoa : *(Hiru haurrei begiratzen die eta irriz karkailan hasten da.)* Ha, ah, ah !!…

Gavroche : Agur, andere Tipulin ! *(Atezainari so, erratza eskuan.)* Anderea, zure zaldiarekin ateratzen zira ? *(Alegiazko erreka batean jautzi eta punpe, beroki beztitu gizona trenpatzen du.)*

Gizona : *(kexu)* Irringarria zira, eh !

Gavroche: *(Sudurra altxatuz, berokiaren gainetik.)* Jauna kexu da ?

Gizona : Bai, eta kasu'mazu bestaldian !

Gavroche : Bulegoa etsia da. Zuen hasperen eta zinkurinetaz, zazpi axola ! *(Eskaleari begiratzen dio ; hormatua da, akuriko ate baten azpian, eta kasik biluzik.)* Gaixo neska, ez du galtzarik ere. Hara, har'azu hori bederen. *(Bere lepoko beroa ateratzen du, eta eskalearen sorbaldan pausatzen. Neska harritua da, hotz ikarak jana, eta berokia onartzen du, ixilik.)*

BRRR ! *(zeruari so.)* Bainan zer deabru ? Berriz ere euria ? Hola segitzen badu, nik lekuak husten ditut, eh… *(Eskalea begiratzen du, lepoko beroan torratzen da.)* Berdin da, hunek bederen estalgi on bat badauka. *(haurrei)* Eta zuek ttipittoak, afalduak zirezte ?

Gehiena : Jauna, ez dugu deusik jan, goiz goizetik.
3
Gavroche : *(Jaun handi.)* Aita amarik gabe zirezte, beraz ?

Ttipia : Barkatu, Jauna, aita ta'amak baditugu, bainan ez dakigu nun diren.

Gavroche : *(Pentsakor.)* Batzutan, hobe da hola, jakitea baino.

Gehiena : Badu bi oren ibiltzen girela, xoko guziak ikertuz, eta ez dugu deusik atzeman.

Gavroche : Badakit, xakurrek dena jaten dutela. *(Ixil une bat.)* Ah ! Gure hurbilekoak, gure askazi ta'gurasoak, galdu ditugu…bai, galdu…nun ote dira ?..Bitxi da eh, ez dea hala ?
Alta…*(sabela torratuz.)* Hunek ere hazi behar du noiztenka…*(Bere palto ta galtzerdi sakel eta xoko guziak ikertzen ditu. Azkenian burua altxatzen du, lorios.)* Lasaitzen gira, ñimiñoak. Hara hiruentzat afaltzeko modua. *(Sos bat ateratzen du sakelatik, bere bi lagunak okindegirat pusatzen ditu, eta bere sosa kontuarrean pausatzen, oihu eginez.)* Nausia, sos bateko ogi bat !
*(**Bolanjerra**k ogi bat eta ganita hartzen ditu.)*
Hiru zatitan, plazer baduzu. *(Jaun handi.)* Hiru gira.
*(**Bolanjerra**k hiru haurrak begiratzen ditu, eta ogi beltza emaiten die.)*
Zer da hori !? *(kexu)*

Bolanjerra : E bee…Ogi bat…Ogi bat biziki ona…Beltxarana, bigarren kategoria.

Gavroche : *(Goratik, hotz hotza.)* Bi hilabateko pasta zahar bat erran nahi duzu…Harddo eta ulitzez emokatua ! *(Bere bi lagunak erakutsiz.)* Nik dut ordaintzen !
*(Irripartsu, **Bolanjerra**k begirada samur bat egiten die hiruer.)*

Gavroche : *(Gizonaren irripar urrikaltsua eskarniatzen du ; ez zaio batere gostukoa.)*
Eta zer puttil ! Zergatik hola begiratzen gaituzu ?

Bolanjerra : *(Irriz.)* Ah…PUTTIL !…Errak to, hik bederen ez duk mihia sakelan ! *(Beti irriz.)* Joan zauk ba…Xatarra uzkian ta…
(Ogi xuri bat hartzen du, hiru zatitan mozten, eta sosa hartzen du.)

Gavroche : *(Bi haurrei.)* Ale, klaska zazie ! *(Bi haurrak, harrituak, **Gavroche**-ri begira ; azken hau iriz.)* Ah, ba, egiazko ñiñiak, zer inoxentak ! Jan !! *(**Gehiena**-ri zati handiena emaiten dio, eta beretzat ttipiena atxikitzen.)* Sar'ak hori sabelean !

*(Bi haurrek ogia gogotik ñakatzen dute. Bainan okindegian soberakin dira, eta, ordaindua izanez gero, **Bolanjerra**k lekuak husteko konpreniazten die.)*

Gavroche : Sar giten karrikarat !

(Gibel alderat pusatzen ditu. Oihala hesten da.)
<u>BIGARREN AGERRALDIA</u> (bigarren zatia.)

Taula gainean, oihal etxe gisako bat ikusten da, hiru zurkaitz eta sarez osatua. ***Gavroche*** *heltzen da,"garratoin" bat atxikitzen duela eskuan. (Arraxina/mitxa argi bat.)*

Gavroche : Hara, heldu gira ! Aupa LAFAYETTE Generala ! *(Bi haurrei.)* Xitoak, ene etxean zirezte !…Ale, lau pataka !

Sarea idekitzen du, bere lagunak polliki sararazten, eta oihal etxea ontsa zerratzen du. Hiruak estalgi baten gainean etzaten dira.

.

Gavroche : Are, orai, buba ! Argia hiltzen dut.

Gehiena : *(Sarea erakutsiz.)* Jauna, zer duzu ba, hori ?

Gavroche : Hori ? Garratoinen-tzat. Hiriko baratzetan atzeman dut. Basihizien zaintzeko alanbrea da. Magasinetan ere bada hauta : Pareta baten gainera igan, leiho bat hautsi, eta gero ate baten azpitik pasa, hartu, eta eskapa lasterka !

Mintzatzearekin, ttipiena estalgi pean ongi kukutzen du.

Ttipia : Oh.. zer goxoa..berotzen naiz !

Gavroche : *(Estalgia begiratuz.)* Horiek zoo batetik heldu dira : Hau ximinoena zen, eta hau jirafa-rena. Aberek horiek guziak bazituzten ; hartu dizkiet. Ez dira gaitzitu, erran diet : "Elefantearen-tzat dira !" *(Ixil une bat.)* Ahal den bezala egin behar da, eta gobernoari erraiten diot, TIRRIT !

Bi haurrak elgarren kontra tinkatzen dira ; ***Gavroche****-ek estalgiarekin ontsa kukutzen ditu.*

Gavroche : Eta orai, buba eta lo !

Argia itzaltzen du, eta kasik ilunpea da. Karraka eta karraka ainitz entzuten dira, arrabots bitxi bat egiten dutela : garratoinak dira.

Ttipia : *(Ikaran beldur.)* Jauna ?

Gavroche : *(Lokartzen hasia.)* Zer ?

Ttipia : Zer da hori ?

Gavroche : Garratoinak dira.

Ttipia : Jauna ?

Gavroche : Zer ?

Ttipia : Zer dira ba, garratoinak ?

Gavroche : Saguak dira.

Ttipia : *(Babestuta.)* Jauna ?

Gavroche : Zer ?

Ttipia : Gatu bat behar zinuke hartu…

Gavroche : Ukan dut bat, bena jan dautate.

Ttipia : *(Berriz ere izitua.)* Jauna !

Gavroche : Zer ?

Ttipia : Nor dela ba, jana izan ?

Gavroche : Gatua.

Ttipia : Nork ote du ba, jan, gatua ?

Gavroche : Garratoinek..

Ttipia : Saguek ?

Gavroche : Bai, garratoinek..

Ttipia : (*Izitua, saguek gatuak jaten dituztela.)* Jauna, gu ere janak izan ahal gintezke, sagu horietaz ?

Gavroche : Bixtan dena ! *(Haurraren beldurra ikusiz.)* Ez izi ñimiño ! Ez dira sartzen ahal. Eta hor niz gero ! Har'ak ene eskua. Hago ixilik eta lo egizak !

V.HUGO : Les heures de la nuit s'écoulèrent…L'éléphant, debout, immobile, les yeux ouverts dans les ténèbres, avait l'air de rêver, comme satisfait de sa bonne action, et abritait du ciel et des hommes les trois pauvres enfants endormis.

Le rideau se referme.

<u>LAUGARREN AGERRALDIA</u> (bigarren zatia.)

Hamar bat presuna ikusten dira, presaka, kartoin eta puska metatzen, barrikada edo karrika hesi bat egiten dutela. Harat-hunat ainitz, taulada-tik gibeleko gordagirat.

Jazarle 1 : Erna giten : soldaduak heldu dira, saldoan.

Gavroche : *(Kesa batzutara iganik.)* Heia ba, lagunak, erna, erna !

Jazarle 2: Hi, kalakaria, hobe huke laguntza poxi bat ekartzea !

Gavroche : *(Beste kesa batetara jauzinez, jazarle bat larderiatuz.)* Hola, auher handia ! Erna hadi amiñoat !

Jazarle 3: Uste duzie den mendreneko xantza badugunik ?

Gavroche : *(**Jazarle 3**-ri)* Ametsetako lukinka, jazar hadi azkenian !…Are jaka !..jaka hor !!

Jazarle 1 : Zer afera'uk hik, ñimiño ! *(**Jazarle 3**-ri)* Goizeko hiruak aldian, laguntza ukanen diuk.

Jazarle 2: Erreximendu bat jin beharra omen zaukuk.

Jazarle 1 : Erreximendu edo ez, PARISE altxatuko da ! *(Harmak izkin batean erakutsiz.)* Anartean, lagunek, mailegu pollita egin dute armategi batean.

Gavroche : *(Joan jin-ka, gelditu gabe.)* Bainan zer deabru, nun dituzie zainak ! Harro, harro, kotxinos !!

-

Jazarle 4 : Errak, hi, bizar poxi bat ukanen dukalarik, mintzatzen ahalko haiz !!

Gavroche : Bizarrak ez du egiten, ez gizona, ez oldarra !…Alo, mugi, zer deabru !..

Jazarle 3: *(**Gavroche**-ri.)* Zer leizafina egiten dukan, hik !

Gavroche : Bai, eta, ahal banu, oraino gehiago xixta nezake !…PARISEKO pobre guziak, zatozte gurekin, karrikarat !…

Enjolras : *(**Gavroche** erakutsiz.)* Hunen akulia ? Miseria !…Hunen indarra ? Alegrantzia !…

Gavroche : Haiba ! Ekarri hunarat, harriak, barrikak, eta puska guziak ! arrunt ttipia da, zuen karrika hesia ! Bota hunarat dituzien guziak ! Te, hara, berinazko ate bat !

Jazarle 4 : Bainan zer egiten ahal diaguk, berinazko ate batekin, ttipitto ?

Gavroche : Ttipitto beharba, bainan hi buru xilo ! Berinaz emokatu barrikada bat, ezin atakatua duk, eta desegiteko biziki zaila !

Jazarle 3: Nola hori ?

Gavroche : Berinaz emokatu pareta baten gainerat, iragan zireztea sekulan, sagar ebasteko ?…
zangoak xintxikatzen dira, eta ipurdia ere bai !

Jazarle 3: Krixtoin ideia da, ez nion sekula pentsatuko.

Gavroche : Egia da zuen izpiritua ez dela baitezpada eguzkiaren argia. *(Batetik bestera badoa, tira'hala.)* Harma bat ! Harma bat nahi dut !

Enjolras : Harma bat, hik ?

Gavroche : Eta zergatik ez ? Tiratzen badakit !

Enjolras : Gizonentzat aski izanen delarik, haurrei emanen dizkiegu.

Gavroche : Erahiltzen bahute, hirea hartzen diat.

Enjolras : Handi hadi lehenik !

Gavroche : Hirea, edo…Hau ! *(**Javert**-en harma erakutsiz.)*

<u>BOSTGARREN AGERRALDIA</u> (bigarren zatia.)

__Gavroche__-ek harma bat erakusten du. __Javert__-ena da ; azken hau, barrikadan lanean arizan eta, jartzen da, pentsakor, besten ganik bereix. __Gavroche__ hurbiltzen zaio, kasu eginez, ametsetatik ez ateratzeko bezala.

Enjolras : *(__Gavroche__-ri hurbiltzen zaio.)* Hi, ttipia baihiz, hail'oa hemendik, ez hiute ikusiko. Ibil hadi karrika horietan, heia, jakiteko zer pasatzen den.

Gavroche : *(Papua hantuz.)* Ah !..Ttipiak zerbaitetako on dira, beraz !…Untsa, banoa !… Anartean, mesfida zizte handietaz…*(Botza apaltzen du, eta __Javert__ erakusten.)* Ikusten duzue handi hori, hor ?

Enjolras : Bai, eta, zer ?

Gavroche : Salatari bat da.

Enjolras : Segur haiz ?

Gavroche : Duela bi aste, "IENA" zubiaren ezkinean nintzen batez, airea hartzen, bortizki arrapatu nau, eta botatu, fuera futro.

__Enjolras__, bere adixkide azkar bati buruz doa, eta mintzatzen dira, ahapetik. Bi biak __Javert__-en gibelean emaiten dira, ixilka.

Enjolras : *(__Javert__-eri.)* Nor zira zu ?

Javert : *(Harrapatua, eta gero, serios, jaun handi.)* Ah…Ikusten dut…Eta gero, zer ?…

Jazarle 3 : Salatari bat zira ?

Javert : Gobernuko langile bat niz.

Jazarle 3 : Nola duzu izena ?

Javert : JAVERT.

__Enjolras__-ekin hartzen dute biek, eta bortizki lurrean emaiten. Azkarki tinkatzen dute, eta untsa ikertzen.

Enjolras : *(Karta bat atera dio sakelatik, eta irakurtzen du.)* "Segurtamen zerbitxuko zaintzale", **Javert**, polizia inspektore, 52 urte. **Gisquet** prefetak sinatua.

Jazarle 3 : *(Ikertzen segituz.)* Muntra bat, eta moltsa, urrezko sosekin…

Enjolras : *(Atzeman berri duen paper bat irakurtzen.)* "Bere lana bukatu bezain laster, **Javert** inspektoreak, zainketa berezi bat eginen du, heia, gaizkile batzu mogitzen diren, ibai-aldean, "IENA" zubiaren gunean".

Gavroche : *(Denak ongi segitu ditu.)* Saguak du gatua arrapatu…

Beste guziak hurbildu dira ; __Enjolras__-ek, __Javert__ eramaiten du gibeleko gordagirat, presuner bat bezala.

Jazarle 4 : Bainan zer pasatzen da ?

Enjolras : Salatari bat duk. *(**Javert**-eri.)* Barrikada galtzekotan izanen girelarik, tirokatua izanen zira.

Javert : *(Beti harro.)* Zergatik ez segidan ?

Enjolras : Kartuxa guti dugu.

Javert : Ganitarekin buka dezagun beraz.

Jazarle 4 : Salatari !…epaileak gira !…ez eta hiltzaileak…

Enjolras : *(**Gavroche**-ri.)* Hi habilua ! Egin zak nik errana.

Gavroche : Banoa ! *(Badoa, eta berriz gibeletat.)* Ah..eta, bere harma emanen dautazue !…Soinularia uzten dauziet, bainan xirula nahi dut.

Armada agur bat egiten du, eta desagertzen da, gordagi alderat. Oihala hesten da.

Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, http://antzerkit.eke.eus helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.
Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.
Ildo beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).
Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.

antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteur.ices dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse http://antzerkit.eke.eus.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.
De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.